

Florentina Maisterra Berruezo
Aria, Nafarroa (1916)

Aurkibidea

Biografia

Arian jaioa. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Zintak

ARI-008

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1979-01-01
- **Iraupena:** 7 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

ARI-009

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iturralde, Juan Javier
- **Data:** 1985-01-01

- **Iraupena:** 4 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

ARI-010

- **Proiektua:** Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1985-01-01
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Aranzadi elkarte

ARI-011

- **Proiektua:** Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iturralde, Juan Javier
- **Data:** 1985-01-01
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Aranzadi elkarte

Pasarteak

1. Bordako biziaz eta gaztagintzaz

- **Erref:** ARI-008/001
- **Iraupena:** 0:07:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Bordako biziaz eta gaztagintzaz azalpenak.</p>

Transkripzioa

- Bai, guk beak eman? ta gero bordara itzultzen gine... beak etortzen tzire berak.
- Eta noiz ateratzen zen (berori) etxetik?
- E(t)setik? goizean, argitu gabe? ta fan bordara? eta bordan eman yatera beei? ta gero kanpora atra? ta, bordara itzuli; ta gero, arratsean, bila fan.
- Arratsean?
- Arratsean, berriz, bila fan? ta beak bordan sartu? ta eman yatera? eta gero... etsera berriz.
- Eta berorrek ikusi du gazta egiten?
- Gazta ez, guk ez gindue eiten, guk ez gindue ardieik, beak; guk ardieik ez gindue orduan.
- Baina norbaitek izanen zuen...
- Bai, baëa gu ez gine ëoaten nior ere ikustra, lana an asko bagindue.
- Eta ez daki gazta nola egiten den?
- Bai, badakit nola eiten den, baëa nik eztut ein gazta.
- Eta konta dezake nola egiten zen? ikusi du egiten? nola egiten zen eta

zein ontzi edo errezipienterekin eta nola...

- Trabel, seitzi? ardiak? kaikura, kaikura; ta gero? ontzi batra bota? ta eman... kuajoa, ta gero biltzen deleik? eiten da gazta.

- Ez zen egiten ezpata batekin gurutze bat edo horrelako zerbait?

- Bah! nei duenak einen du, eztuenak nei ez. Ta gero, ori, etzartzen du? ene aitak eiten tzitue? aroak, eiten tzitue... 'aldeak' erraten tze; ori... tabla mee bateki(n)? biltzen tzue? etzartzen tzako, puntta batean ola: beira (kazeta-orriren bati forma emanez-edo), ola eiten tzüe aroak, ona, e? kusten duzu? ta... go-, ori ez, txikiago. Tabla mee bat eiten tzue arek? bear tzue espeziala...

- Behar tzuen espeziala?

- Espeziala tabla, ta aroak tzire, t'eiten tzitue aroak? eta gero? moldeatzen tzitue; moldeatzen tzitue ola, ta, or... eit(t)en, sartzen tzue... gazta, e? ta, orduan emen ein, zurari ezartzen tzako xilo bat? eta kuerda bat, ta gero betetzen tzueleik ori? kuajadäikin? orrek, kuerda arekin? ertsitzen tzue? iduki zuela firme? gatzura? ta... gastatu artio, gaz(t)zura...

- Iduki zola?

- Ba, idukis? bai, ertsitus! ertsitus bere kuerdeiki(n), gatxura ateratzen tzue, eskorritzen tze guzia; gatxura, ¿sabe lo que es?

- El suero.

- El suero, gatxura?... atra artio beiti; ta gero? eskorritzen tzueleik ongi? pues... ertsitzen baizue kuerda arekin! gero utzi tzue, uzten tze txukatu artio, gazta. Ta gero? nei baduenak? gatxura ori, nei badu? nei duenak, irakitu? ta, ira-, atratzen tze rekesona... nei zuenak, ezpazue? emen, botatzen (t)zue.

- Eta rekesonari nola erraten zaio?

- Rekesona; rekesona...

- Zenbera edo...

- Gaztabera erraten da... ez; gaztabera da 'la cuajada'; ori da gaztaberaikin eiten tze gazta, ta gero, gatxureikin?... ori, ta orduen nee aita(k) eiten zitue? aro oek, erraten tzue gaztazala; izena du gaztazala, oek, gaztazalak.

- (Berriemailearen seme Juan Javier:) Zer, oinak?

- Ez, ez, uñak ez; are(k)... ene aitak eiten tzitue aroak, tabla... espezial batekin, eta ori da gaztazala, ta ertsitzen tzue kuerdaikin? inguru-inguru? beiti ezartzen tzue zolan, nola erraten da?... gatzaxura edo eztakit, gatzatsura, ze... ala, inguru zura bat? ta bi... gider bi, ta emen otaxkal at eiten tzako?...

- Bi gidarbe? (gaizki ulertua guk)

- Giderra... giderra, dos mangos de madera; t'orduan? an... emen, beitzo eskorritzen? emen eiten tzako okaxta bat? eta, ordik atratzen tze gaxura, pues beitzo pozalera. Ta nie aitak egiten tzitue? gauz abäk guziak, zureikin; gatxura? gazta o gaz-, gatzazola? gatzazalak? eta... aizkorak? eta redes para pescar, gauza guziak eiten tzitue nee aitak, katedrak eta gu(t)zia.

- Katedrak ere bai...

- Bai, ze gizon abila!... goitiko sukaldean beitut ene aitak ein katedrak. Bai, e?

- Bai, eztut utzi nei, ez; bat autsi ze? ta nei nue... eman, partitu? eta goititu ondo naiz, kolköa? pena eman tzada, ta oroitu ene aitak ein tzuela? ta ni afandu naiz koekin, olakoak, ze pena eman tzaden! enue eman ez. Oso abila ze ene aita, e? te, oiii! ze gizon abila!... jolin! ta bere rantxoak eta bordan ze rantxoak eiten tzituen! beti piperreikin, ze bakan-, ze akal-, bakaladoak eta... sí ¡qué cosas hacía el pobre hombre! luego, se le quemó la borda también al pobre hombre... Sekula egon da, ain... eztakit zenbat urtes mediko bat, berrogei urte edo on? ta sekula ez emen ziotte artu di-, pulsoas iñork ere, ta gero kantzera atra zitzeo estomagoan? ta, lau eunez il

tze; sekula! lemisiko aldian eritu zena; sekula etzue gauzä izan. Ta gero? ala il tze gaxua, bäi.

- Kontxo! bat-batean mina etorri eta eraman...

- Bai, ta medikoak errezatu za-, rezat-, errez[et]atu zako? ori... esne anitz eta, polboak eta ori, papilla batzük eta? deus etxako ongi artzen, ta berak? bordan, babak egosi, ta pure arekin? ori rezibitzen tzako eta erran tzako medikoari: "Zuk errezatu... errezatu dazun gauzak?..."

- Errezetatu, bai...

- "... errezetatu daazuten? batek ere eztaa ongia eiten, bakarrik naure... baba-pureak". Ta, "Bueno, pues segitu zaure baba-pureikin". Bakarrik ori aprobetxatzen tzako; medikoa bäino ohea ze bera... gauza guziendako. Pues bai, ala eiten tzue gazta, arron, badakit arek zer gauzak eiten zituen, Jesus!...

2. Aurizko feriaz

- **Erref:** ARI-009/001
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Santa Krutzetan eta San Migeletan egiten zen feria Auritzen. Leku askotako jendea biltzen zen; iparraldetik ere etortzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta Burgeten baziren ganadu-feriak? oroitzen zara?

- Bai, ori izaten tze... Santa Kruzean, eta... sanmigeletan, setienbrea ta maëatzean, Santa Kruz ta San Migel.

- Eta zer, eramaten zenuten herriko abereak Burgetera?

- Abrea gendu, bea kendu ein tze; beak ema-, saltzen, baëa, aitag ematen tzitüe bai, beak saltzeko, ta aretxeak ee... bordatik beretik saltzen tzitüe, faten tzire tratanteak etxera, Aurizko Azantza ta... aniz tratante yoaten tze.

- Eta orduan Aurizko feriara etortzen ziren bertze aldetiko?

- Bai, Frantziatik eta toki anitzetik eta gero ezartzen tzuzte, emen bezala barrakak eta ferienteak eta ori, baëa ori, oso inportantea ze, ta... gero galdu ze? Ariben asi zire ezartzen feriak? eta orduan, Aurizkoak galdu zute, baëa... Aribekoak akabatu dira eta orai asi dira... Auritzen berriz. Egun leitu dut nonbeit ta, setienbrekoa Auritzen ei direla prestatzen eztakit zer ferietako.

- Eta bertze aldeko jendea, menditik etortzen ze edo... nola etortzen ze?

- Ze, Frantziatik? ez, karreteraz karretera.

- Orbaizeta aldetik, Esterenzubitik, ez zire pasatzen?

- Ez, ori... bah, Nabalatik pasten tzire; Orbaizetatik ez, Orbaizteko Olatik. Ori? e... Nabalatik pasten tzire.

- Bai? baina hortik ez dago karretera...

- Karretera eiten, eiten tzute, ein tzute bide bat ideki zute; idorra zeoleik? pasten tze baea auria ein balin bazue? loian etzira atratzen al... denbora idorr oekin? bai, orai eztakit. Usotegietra unai? ioaten tzire ongi, gero eztakit nola pasten tzuten... astoak eta abreak eta... auntzak eta, beiak eta deneteik eman dauzte, potroak eta; feria oso inportante an gainea?... Auritzen. Ta, otel guziak eta yende, denak beteik.

- Ijitoak joaten zire?

- Eneiz oroitzen e, xitoikin daus ez.

- Eta valencianoak?
- Bein e ezpeiditu(t) ezautzera non don-, non-, nongoak tziren, tziren valencianoak edo, eztut uste, eztakit, akaso bai. Amas... beraneante anitz ioaten da Auritzera, t'Orreaga ere bai, ta eiztariak, eta eskiatzera ere bai, Orreaga ta; bepiñen?... gende anitz, ta (g)ero... eskursioneak eta, beti, jende... pasa.

3. Arian, San Juanetan, hurritz-elorriak etxe atarietan

- **Erref:** ARI-010/001
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Arian, San Juanetan, bedeinkatutako hurritz-elorriak jartzen ziren etxe atarietan.</p>

4. Aria: Subilaroa, Gabon-gaueko kanta, danbor-hotsak I

- **Erref:** ARI-010/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:00:29. **Bukatu:** 00:02:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Eguberrietan danbor-jotzaileak egoten ziren. Gabonetako kanta eta koplak. Subilaroa.</p>

5. Aria: subilaroa, Gabon-gaueko kanta, danbor-hotsak II

- **Erref:** ARI-010/003
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:02:19. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Eguberrietako ohiturak Arian. Etxerik etxe joaten ziren kantari eta danborra jotzen zuten. Zer abesten zuten. "Subilaro eguna".</p>

6. Ariatarrek San Juan bezperan surik ez

- **Erref:** ARI-011/001
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:59

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juan bezperan ez zuten surik egiten Arian. San Juan egunean bedeinkatutako elorria ipintzen zen etxeetan, etxea babesteko.</p>

7. Gabon-gaueko mezaren eta afariaren aipamena Arian

- **Erref:** ARI-011/002
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:00:59. **Bukatu:** 00:02:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Gabon-gaueko oilar-mezaren eta afariaren aipamena Arian. "Subilaro-gaua" esaten zioten.</p>

8. Errege-egun bezperako karta-botatzea eta zintzarrotsak Arian

- **Erref:** ARI-011/003
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:02:40. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Errege-egun bezperako karta-botatzea eta zintzarrotsak Arian.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com